

# Aziera

Aziera, aziera! Gaurko umeen aziera! Zeinbat alperriko itz eta gai berdiñari eragite! «Ezin dezagu gaur aurrik bide onez erabilli; ez digute lotsarik, ez esanik egiten. Berak nai dutena besterik... ez agindu! Ume denganiño auek, gainera, batak bestea kutsu-erazten dute».

Onelako izketak noiznai aditzen dira, gure etxean eta auzokoan. Azi era zer da? Jokabide astitsu ta gora aundikoa, noski; apurka apurka aziaz, geituaz dijoana. Azi ta ezi, bi itz berdin xamarrik. Azte edo edukatze ori sukaldean asten da; eskolan indartu ta goitu, ta bizitzaldi guztian iraun. Gaur kultura itza ezpain ertzean darabilgu, eten gabe. Era askotako kulturak dira, ordea; baiña guztien oiñarri umetakoa, etxean eta ikastolan, aurtzaroan artzen dana. Onek, beraz, sekulako importantzia du.

Baiña, zer da giza-kultura guztien oiñarri dan aziera? —Zer, zer dan? Bide bat, ikasbide edo ezagupide bat. Onen bitartez, edozein pertsonak, berez dakarzkin gaitasunak, trebetasunak argitu, aundi-azi ta indartu egin oi ditu. Bakotitzak gero bere giza-lege ta jokaeira, ikasitakoari buruz, zuzendu oi ditu; ortaz dagizki bere pausuak. Experientzi asko izan oi ditu per-

tsona batek, eta umetatik izan ere, ta oar-ikasizko zer guzti oiek jazten dute, apaintzen dute gorputz eta anima. Experientzi oiek auke-ratuak dira askotan, beste batzuetan ez; baiña, asko edo gutxi, denak ditugu gure aziera sendotzen digutenak.

«Giza-lege oneko» neskatilla edo mutilla esan oi degu. «Nun ikasi-dezu?» —Alako ikastolan, erantzuten da. Zer esan nai du onek? Azi ta ezteko jokabide bat izan duela; experientzi berezi batzuk artu ditula; urlia ikastetxetan ematen diranak. Eta ango eraz, moduz edo taiuz izan du bere umetako aziera. Au da: ikastetxe artako experientziak gai-azi dute, gero baxki, baxterriko ere, indartsuago beat boda, antzeko gauzeri kopela ematen. An ikasi du bizitzan gauzak, oso erabaki ta ganoraz alondra.

Ikusi ta ikasiz, asko lantzen. Olantxe jazten gera gogoz. Bi lan ikaspena, beraz, guztiz egoki ta on zaigu. Geienetan beintzat, norbere experientziz azi ta ezi oi gera; gero, gizartea, lagun arteak ere ez gaitu bertanbera uzten, itsumustuan, alabearraren atz-artean, esku goxoa iluzaturik ondo lagundi baizik. Gizon artean bizi gera, bertan murgilduta, arraia itxasoan bezela. Ortitik gure inguruokoak naitaez josi ta

itsatsiko digute beuren zerbait: inguruko eragiña gogorra izan oi da. Gizarteak lege ta bide batzuk dauzka —ezin ukatu— bere-bereak, eta oien esi barruan ibilli bearra degu. Naita ere ezin oietatik aldendu, ezin askatu, ezin urrun-erazi. Bai sendi ta famili barruan, bai gizarteak —kalean, pabrikan, dendan, eleizan—, beti izango gera giza-giroan, arnasten degun eguratsean bezela.

Giro ori, ordea, gaur bereziki zuzendua ta zaitua, nungoa ote degu batez ere? Eskolakoa. Ta gizarteak, eskolak iraiki ta jartzera-koan, aur bakoitzari zer eskeintzen dio? Gizon izateko erreztasuna, aise ikasi ta ikustekoa. Baita onek berez dakarren erantzun -bearra ere. Aurkitzen dan gizarteak nola bizi bear dan eta zer egin bear duen ikasiko du, pixkaka pixkaka. Ta or aurtxoa giro zuzenduan; bultzia bere azpi-burni barruan bezela, esan dezakegu.

Giro zuzendu ta zaitu ortan ikasiko du biar edo etzi, gazte naiz gizon dalarik, egin bearko duen bizimodua. Eztu berak nai duena egingo, gizarteak eskatzen diona baizik. Aurrak bere eskutxo auletan dauzkan liburuak, gizarteak emanak ditu, ta or ikasiko du poliki poliki gizarteak ontzat arturiko ezaguerak, trebetasunak eta sentikerak. Ezingo du ortik iges egin.

Importantzi aundia emon dio gizonak azierari. Edestiak orrela diño. Erriak, garai guztietan gero, aziera erabilli dute bizi-modurik onenera eltzeko, eurak ortakotzat zeukatenera irixteko. Onekin balia- tu dira beti, len eta orain. Nun artu izan dute aziera ori? Aintzna-ko batean, geienak etxean, eskola-rik etzanean; eta arako zoriontsu batzuk, estadiuak jarritako eskoletan: lenago gutxi baiño etziran kul- tura artzen zutenak. Baiña grezi- rren eta errromatarren garaitik asi- ta, goi-maillako jendea beintzat, eskoletan gogo landu ta jantzi oi- zan. Ortik zeritzen «eskolatuak».

Oraingoan, denok nai degu geu- re burua jantzi; zar eta gazte, guztiak nai degu eskolatuak izan. Gure baserritarak ere, naiz-ta beste arlo ta gauza batzuetan —baserri gai- etan esaterako— oso atzeratuta bizi, euren seme-alabai, buru-uka- penik aundienak eginda, eskolea ematen die, biar edo etzi eurak baiño geiago izan ditezen. Au da, eskolara, ikastetxera, unibersida- dera bialtzen dituzte seme-alabak. Eta ez dira atzenengo dabiltsanak. Ikastola degu, beraz, kultura etxea. Araxe goaz ume-umetatik. An ikas- ten degu lenengo irakurri ta idaz- ten, eta ondoren beste zenbait gai ta jakintza. Eskolea da guretzat ikas-tresnarik bikaiñena.

Ez guretzat bakarrik. Munduko errialde guztiak —beltzak eurak ere bai— eskolara bialtzen dituzte

beren semeak. Seme-alabok eskola- beren semeak. Seme-alabok eskola-

tzeko, beren umetxoeririk irakatsi ta ondorengoen zoriona irixteko.

Igotz



## Drogak eta idazti lizunak

(Vintila Horia's idazpuru onekin ager- tua du lanstro bat, oraintsu. Egoki egi- ña datako, emen, euskeratuta, azal- tzea merezi du).

Ipar-Ameriketatik asi ta Estoko- mo'raiño eta Inglaterra'tik Mu- nich'eraiño, sartzalde zibilizazioko ipar-alde guztia, droga ta onen aiz- pa dan pornografi edo idazti lizu- nen indar kaltegarrien azpian dago, gaurko egunean. Italia ere bai, ta Paris berdintsu, Iur-zerrenda ta alde ilgarri auetan sartu litezke noski; bazter auetan, izan ere, eza- gutu ez baiña igartzen ditugun in- dar batzuk, giza-adimenaren ja- be egiten ari dira.

Zertako ote? Gizonak barnean duen muin ixilleko lokazti satsueta- raiño jetxi naiean noski. Freud'ek arakatu zitun lendabizikoz bezela barne-zulo zabalok; baita geroago beste idazle batzuk ere, arrotu zu- ten ezaguera irixten eztan leize ba-

rruko mundu cri; ta orain, gure nortasunaren zati bezela dan ori, gutaz jabetu ta gaindituaz doaki- gu. Ta alderdi satsu orren itzalak, illargi-beran lez, gure izatearen bes- te alderdi argitsua, benetakoa, jan eta iruntsiaz dijoa. Droga ta por- nografia dira gaur armarik sendo- enak burruka ezberdin oñtan; bai, argiak du galtzeko arriskurik ge- ien.

Ez det ezkor (pesimista) izan nai; ezta, ertz iluneko iragarkizun geiegikerietan jaustariak ere, ez nu- ke nai; baiña saski. Nebebe auetan Europa guztian zein egin dituelan txango ta ibilaldiaren ikusi dada- netik, esan nezake, bizi geran mun- du au, azke ta «libre» ditzuen dio- gun mundu au, beerantza dijoala, izugarrizko abiadan joan ere, nor- baitek, droga ta pornografi ostetik ematen dizkion kolpe seguru ta go- gorpean.

Errez ikusi dezakegu nola, pix-